

Eilaskide hori:

Maiatzaren 30ean kalean izan gara

30eko greba irailekoa baino eskasagoa izan da, hala ere eragin handia izan du deialdi horrek, orokorrean eta ikastetxeetan ere, haur eskoletatik unibertsitatetara. Kurtso amaiera izan arren, irakaskuntza erreferentea izan da berriro ere, sektoreen eta zonaldeen artean ezberdintasun handiak egon direlarik.

Etengabe eraso egiten diguten honetan, aipatzekoa da erakutsi dugun erantzuteko gaitasuna. Goizeko ordu txikietan hasita, arratsalde erdira arte, milaka pertsona kalera irten dira protestatzera. Grebalariek, langabetuek, pentsionistek, ikasleek eta abar luze batek ez direla etsiko eta borroka tresna baliagarria dela ozenki esan dute.

Gure sindikatuaren parte hartzea handia izan da greba honetan. Ez da erraza izan, ikastetxeetan dugun hainbat kezka eta eztabaida ez dira konpontzen greba orokorraren egun batekin. Hala ere kalera irtetzea ezinbestekoa zela pentsatu genuen, eta, ditugun datuengatik, afiliatu gehienek irizpide horrekin bat etorrira lan ederra egin dutelakoan gaude. Zorionak.

Greba horren kontra ohiko elementuez gain (hainbat langileren beldurra edo egoera prekariora, gehiegiko zerbitzu minimoak, sindikatu batzuk parte ez hartzea...), aurreko grebetan aldeko jarrera adierazi duten komunikabide batzuk erabateko kontrako jarrera adierazi dute. Nafarroan mobilizazio batzuk debekatu dituzte, eta lehen orduetan hasi dira atxiloketak.

Konbokatzaileok asko dugu hobetzeko, zalantzarik ez dago: ez da egon jomuga argirik greba bere kontra bideratzeko eta Gutun Sozialak oraindik ez du ilusioa pizteko beste indarrik; banakako propaganda material komuna baino ikusgarriagoa izan da hainbatetan, horrek dagoen batasunaren itxura kaltetzen du... Aurreko deialdiekin alderatuta, koordinazio eta lankidetzak hobe gauzatu dugu honetan, nahiz eta oztopo handiak sortu tamaina, esperientzia eta lan egiteko era guztiz anitzak uztartzeko. Edozein kasutan esperientzia positiboa izan da.

Argi dago hau ez dela amaitu. Troikak beste erreforma laborala, berehalako pentsioen erreforma berria, eta BEZaren igoera eskatu berri du; Madrilgo gobernuak bere agendari darraio, LOMCE proiektua onartu du... eta Iruñeko eta Gasteizko gobernuak esanekoak dira oso, baina ez herritarrokin, baizik eta aipatu botereekin.

Orain alternatibak eraikitzeke unea da, Gutun Sozialean parte hartzea dagokigu, ekarpenak egin eta ahalik eta pertsona eta eragile gehienak erakartzea. Ez da lan makala.

EUTSI GOGOR!!

Euskal Herrian, 2013ko ekainaren 4an
STEE-EILASen Batzorde Iraunkorra



Hola, eilaskides:

UN 30 DE MAYO EN LA CALLE

A la hora de hacer una valoración sobre la huelga del 30 de mayo debemos reconocer que los datos son peores que los del 26 de septiembre, aunque la jornada ha tenido un impacto muy significativo, también en nuestros centros, desde las haurreskolas a la universidad. La enseñanza ha vuelto a ser un referente a pesar de encontrarnos a final de curso, con notables diferencias entre unas zonas y otras y entre unos sectores y otros.

En estos tiempos en los que estamos sufriendo continuos ataques, la capacidad de respuesta que hemos mostrado es realmente notoria y digna de mención. En las movilizaciones habidas desde primeras horas del día hasta media tarde han tomado parte muchos miles de personas, gente que ha hecho huelga o está en paro, o jubilada, o es estudiante... gente que afirma que la lucha sirve, que no se resigna.

La implicación de nuestro sindicato ha sido grande en este día de huelga. No ha sido fácil, hay muchos debates y preocupaciones en nuestros centros que una convocatoria de huelga general no aclara. Pero también en esta ocasión estábamos convencidos y convencidas de que volver a responder era imprescindible, y por los datos que tenemos la mayoría de la afiliación ha coincidido con ello y ha realizado un gran trabajo. Zorionak.

A los elementos que habitualmente juegan en contra de las huelgas generales (el miedo y la precariedad, la ausencia de algunos sindicatos, servicios mínimos abusivos...) se ha sumado la actitud beligerante de algunos medios que en anteriores convocatorias se han mostrado favorables a las mismas. En Navarra hemos sufrido desde amenazas de prohibir varias de las movilizaciones previstas hasta detenciones desde primera hora de la mañana.

Respecto a la convocatoria, es indudable que hay muchos aspectos a mejorar: no ha habido un motivo concreto contra el que dirigir la huelga y la propuesta de la Carta Social es todavía demasiado incipiente como para generar ilusión; la propaganda conjunta de todos los organismos convocantes resulta escasa frente al aluvión de material que sacan algunas organizaciones por separado, por lo que la unidad aparece como más exigua de lo que realmente es... En todo caso la experiencia es positiva, en comparación con convocatorias anteriores hemos avanzado en la coordinación y organización conjunta de los actos entre los sindicatos y las organizaciones sociales, a pesar de las dificultades que conlleva el articular organizaciones de trayectoria, implantación y formas de organización tremendamente diversas.

Es evidente que esto no ha acabado, la Troika exige otra reforma laboral, una nueva e inminente reforma de pensiones y más subidas del IVA; por su parte el gobierno de Madrid continúa con su agenda, aprueba el proyecto de LOMCE... y los gobiernos de Iruña y Gasteiz siguen la senda presupuestaria que les mandan, independientemente de lo que pensemos la ciudadanía.

Ahora nos toca construir alternativas y participar en la Carta Social, aportando ideas y atrayendo al mayor número posible de personas y agentes.

¡¡ÁNIMO y ADELANTE!!

Euskal Herria, 4 de junio de 2013
Comisión Permanente de STEE-EILAS

